



TOLOSARRAK, ESKIEN GAINEAN ARTISTAK

Alpino Uzturre elkarteko Xabier Saizar eta Imanol eta Ioseba Rojo emaitza oso onak lortzen ari dira 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-02-13

VIIURTEA 1.628.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Telefono zenbaki berri bat jarri dute tratu txarrak eta erasoak salatzeko

TOLOSA Berdintasun sailak martxan jarri duen ekimena da, azkartasuna ziurtatzeko; hau da zenbakia: 943 572222

INAUTERIEI BEGIRA «Errespetuzko portaerak defendatze aldera» pegatinak eta pankartak banatuko dituzte 4



Ikaztegietan zortzi lagun elkartzen dira asteazkenero, bertsotan ikasteko eta aritzeko. NEREA URBIZU

BERTSOLARITZAN TREBATUZ LAGUNEKIN 6



ASIER IMAZ

ONINTZA LASA GIPUZKOAKO EA-REN ZERRENDAGAIA

«Gure eskubideak onartzen ez dituenarekin nekez egin daiteke lan»

TOLOSA Legebiltzarrean bere alderdiaren presentzia «beharrezkoa» dela dio tolosarrak 3



Otsailak 14 eta 21

Irekita, Sarrera doan, Pub Muxu
DJ Julen

Otsailak 28

SU TA GAR EN KONTZERTU HANDIA

SALMENTA PUNTUAK: • Zunbeltz musika denda (Tolosa)
• Peritza taberna (Leitza)
• Leku ona taberna (Etxarri-Aranatz)
• Ilargi taberna (Lekunberri)
• tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

www.salamuxu.com

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen keak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Ertzainen kontrolak

Azken aldiaren kontrolak egiten dituzte ertzainek ia astero basearen aurrean, Zerkausi Txikiaren parean. Lehen ez zen hau ematen, baina, orain, hilabete batean 3 aldiz behintzat pasa zait. Etxera zoaz lasai-lasai, eta bat-batean, ertzain ugarirekin egiten duzu topo, armaturik doaz, gainera. Lehengo la-saitasun egoeratik urduritasunera pasatzen zara pixkanaka, izan ere, beraien ondotik igarotzen zaren bitartean goitik behera begiratzen zaituzte zerbait egin izan bazenu bezala. Berdion dio oinez ala autotz. Beno, autoz eta gauez bada okerrago, linterna batekin hasten baitira lehendabizi eta gero auto barrua argizatzen. Hirugarren aldiz gertatzen zaituzenean arrarora iruditzen zaizu eta galdetu egiten diozu ertzain bati zer gertatzen den, eta erantzun hau jasotzen duzu: «Ez da ezer gertatzen, ohiko zerbait beraien-ertzatizangoda, niretzatez baitaohi-koa armak eskuetan dituzten batzuen ondotik behin eta berriro pasatu beharra izatea.

Edurne**Ibarrako urarena onartezina da**

Ze pasatzen da Ibarrako urarekin? badira iada bi urte edo, ura batzuetan kolorearengatik antzematen da edanezina, beste batzuetan, zaporea, eta bestetan usaina!! bai usaina, eta beste batzuetan barrura, eta gainera Udaletxeak jakinan gainean egonda txarra dela, bejondeizuela! Baten batek makilkazo latzak merezi ditu, eta pagatu behar danean ona bezela pagatu behar Gipuzkoako Ur Kontsortzioari.

Herritar bat.**Bizikletan kaskorik gabe**

Pasa den egunean kotxean nijoala, bizikletan gizezko bat ikusi nuen. Errepide nagusian zebilen, herritik kanpo eta kaskorik gabe. Ez dakit zenbaterainoko ziurtasuna edo garantia eman dezakeen kaskoak istripua izanez gero, baina egia esan, atentzioa deitu zidan. Ilegala izateaz gain, ez da nahiko arrisksua? Tipoak 35 urte inguru zituen, ez zen ume bat.

Maidier**B Blogteka****Aurzberri (1988) udalekuetako argazkiak**

Laskorain Ikastolako ikasle ohi ugariren lehen udalekuak Aurbiz-berrikoak izan ziren. Pepiren esker bertako zenbait argazki berreskuratu ditugu diapositibak eskaneatuz. Hoi da hoi oroitzen! Gezurra dirudi dagoeneko 20 urte igaro direla.

Argazkiak ondorengo web orrian zintzilikatu ditugu: <http://picasaweb.google.es/laskorainkastola2009/EspinalAritzberriUdalekuak198890#>.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain>

Eskolarteko Gipuzkoako kros txapelketa

Igande honetan Azpeitian jokatu zen txapelketan HIRUKIDE-ko korrikalariak sarituak izan dira.

Alebinetan, taldekako proban

bai neske (Leire Alargunsoro, Leire Ezkerro, Idoia Alonso eta Leire Perurena) eta bai mutilek (Iker Gabarain, Beñat Sanchez, Josu Conde eta Martin Rekondo) bigarren postua lortu zuten. Bakarka, Leire Alargunsoro primeran aritu zen bigarren saria etxeratuz; nabaria da bere gogoen balioa.

Jubeniletan berriz, hirugarren lekua borrokatu zuen Ane Elizegik. Aurtengo esfortzuen fruituak jasotzen ari denez, martxoaren 1-ean Jaen-en Espainiako Txapelketan arituko da. Ziur gaude bertan bere barruko kemen guztia azalartuko dela.

Infantiletan berriz, Andoni Elustondo, laugarren; Pablo Martin, bosgarren; Julen Azkue, hamabigarren eta Amaia Elizegi hogeita batgarren geratu ziren.

Zorionak korrikalari eta inguruan dabilten guztiei, aurrera!

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

K Kirol jarduera**Gaur, ostirala****Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30etik aurrera, nesken mailan: Laskorain-Euromar.

Bihar, larunbata**Futbola**

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean Gorengoan Mailako partida: Tolosa CF-Pasajes.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil maila, 10:00etan: Tolosa CF-Antiguoko.

■ Usabalgo futbol zelaian, jubenilen ohorezko mailan, 11:30ean: Tolosa CF-Anaitasuna.

■ Usabalgo futbol zelaian, lurraldekako 2. mailan, 15:30ean: Amoroiz-Martutene.

■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezkoen mailan, 17:30etik aurrera: Tolosa CF-Intxaurdi.

Areto futbol

■ Usabalgo beheko kantxan, jubenilen mailan, 12:30ean, Laskorain-Zarauz.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, infantil mutila, 10:30ean: TAKE B-Oiar-tzun.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etatik aurretik, kadete nesken mailan: TAKE B-Easo Loyola; ondoren, kadete mutilen mailan, TAKE-BKL.

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, kadeteen mailako partida, 17:00etatik aurrera: Tolosa-Leizaran.

Mahai tenisa

■ Usabalgo gymean, mahai tenis txapelketaren partidak, 16:30etik aurrera.

Etzi, igandea**Zesta punta**

■ Beotibar pilotalekuan, 10:00etan Zesta puntako partidak.

Hilak 16, astelehena**Pilota**

■ Beotibar pilotalekuan, Binakako Pilota Txapelketa, 16:30ean, Olaizola I-Patxi Ruiz/ Gonzalez-Barriola.

G Gutunak**Ezker abertzaleak AHTri ez!**

AHT, egungo zatiketa, ukazioa eta menpekotasunaren markoa elikatu eta Euskal Herriko langile eta herri sektoreak odolusten jarraitzeko bitarteko estrategikoa da. Egitasmoa hau dugu egungo markoaren izaeraren erakusgarri: egitasmoari buruzko erabaki estrategikoa guztiak Madrilen eta Parisen hartu dira, euskal herri-tarren bizkar.

PNVk proiektu honen inguruko erabaki demokratikoa hartu beharrean herriari hitza emanez, inposaketaren bidea

hautatu du. Herriari hitza eman beharrean, estatu espainola eta frantsesarekin adostu dituzten proiektu honen nondik norakoa.

Egungo markoak galarazi egiten du euskal herritarrok gure oraina eta etorkizunaren inguruan erabaki ahal izan dezagun; galarazi egiten du zer nolako garrario, lurralde antolaketa eta gizarite eredu nahi dugun erabaki ahal izan dezagun. Eta hartara, AHT-ren eredura kondemnatzen gaitu; gutxi batzuen negozioaren eta gehienon prekaritatearen eredura, hain zuzen ere.

Euskal Herriak, langile eta herri sektoreok, ez dugu AHT-rik behar; Euskal Herriaren menpekotasun egoera irauraraziko duen iruzur berririk behar ez dugun bezalaxe. Euskal Herriak al-daketa politiko eta soziala behar du; AHTren ereduari kontrajarriko zaion eredu eraiki ahal izan dezagun ahalbideratuko duen eskenatokia behar du-gu.

Independentzia eta sozialismoari atek parez pare zabalduko dizkion marko demokratikoa behar dugu.

Ezker Abertzaleabadao, AHT-ren aurkako herri mugimendua-

rekin batera, AHT gelditzera. Ezker Abertzaleak ez du onartuko iruzur berririk egin nahian dabilten horiek gure herriaren lepotik negozioa egiten jarrai dezaten.

Ezker Abertzaleak ez du onartuko gutxi batzuek negozioa egiten jarrai dezaten gure herriari iruzur berririk inposatzea. Ez dugu onartuko eta ez egin zalantzarik.

Abiadura Handiko Trena geldituko dugu!

Larunbatean denok Tolosara!!

Tolosaldeko ezker abertzalea.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurleESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

ONINTZA LASA › Gipuzkoako Eusko Alkartasunaren zerrendagaia

Politika › Eusko Alkartasunaren presentzia legebiltzarrean «beharrezko» dela azpimarratu du Onintza Lasa tolosarrak.

ASIER IMAZ

Eusko Alkartasunak Gipuzkoan osatu duen zerrendan, martxoaren 1eko hauteskundeetarako, Onintza Lasa (Tolosa, 1972) bigarren postuan aurkitzen da.

Nola laburtuko zenuke EAren hauteskunde programa?

Alderdiko Batzar Nagusian onartu genuen gure programa. Gauza oso zehatzak aurkeztzen ditugu hainbat arlotan: herri ikuspegiaren inguruan, ekonomian eta arlo soziallean.

Herri ikuspegiarekin hasiko gara.

Argi ikusten dugu gizartearekin konpromiso bat badagoela, hau da, gaur egungo markoa agortuta dagoela eta aurrera egin behar dugula. Horretarako beti ere argi izanik bideak politikok izan behar dutela; giza eskubideen errespetutik abiatuta. Aurrera egiteak ezinbestean indar politikoen metaketa bat eskatzen du. Ondorioz, polo sobranista baten aldeko apustua egiten dugu, horrek eman diezaioke-lako indarra, babes... aldaketa demokratiko bati. Horretarako garaia da, Espainiak argi utzi baitu berak agindu nahi duela herri honetan. Guk horri ezin diogu men egin bai ala bai, demokratikoki aurre egin behar diogu. Gu independentziaren aldekoak izaki, subiranotasunaren bidean eta konfrontazio demokratiko baten aldetik aurrera egin behar dugu herri bezala bai ala bai; gure eskubideak defendatze aldera.

Arlo ekonomikoari dagokionez?

Gaur egun badakigu krisi egoera batean gaudela. Hori da daukagun egoera. Gauzak ezin dira banatuta planteatu programa batean, hauek lau urtetarako egiten diren arren. Argi daukagu hezkuntzaren, berrikuntzen eta ikerketaren garrantzia, gure herria horretan ondo dabilako. Lehen ere egoera zailak pasa izan ditugu eta beti aurrera egiteko gai izan gara. Laguntzak beharrezkoak ikusten ditugu, ikerketaren bidetik, berrikuntzen aldetik... aurrerapenik badelako. Eta batez ere, hor dago hezkuntza eta lanaren arteko lotura handia. Bestalde, finantza arloan, kutxen arteko fusioa lagungarri iruditzen zaigu, herri honen egoera ekonomiko kritikoa parte-hartzea badute eta lagundu beharra ere bai. Gure ustez egoera honetan entitate finantziero indartsuak garrantzitsuak dira.

Arlo soziala ere ardatzen artean aipatu duzu.



ASIER IMAZ

«Gure eskubideak onartzen ez dituenarekin nekez egin daiteke lan»

Beste hainbat arlo ere ukitzen ditugu: osasuna, etxebizitzak, nekazaritza, kultura, komunikabideak, berdintasuna, giza eskubideak orokorrean... Gu alderdi sozialdemokrata izanik, oso argi daukagu oreka baten bila lan egin behar dugula. Banaketa egokiago bat bideratzen duen politikak pentsatu behar dira, arlo askotara zabalduz. Adibidez, etxebizitzaren inguruan alkilerria da gure apustua. Argi daukagu etxebizitzaren mailan legez egin behar direla, baina garrantzitsuena guretzat kudeaketa ondo ematea da: ondo kontrolatzea iruzurrik eman ez dadin, benetan behar duenak etxebizitzalor dezan. Osasun mailan ere, zerbitzuak zabalte aldera egiten dugu apustua, publikotasunaren ikuspegi batetik. Arlo guztiak dira garrantzitsuak baina batez ere osasuna eta hezkuntza, ezinbesteko eskubide unibertsalak izaki.

Programan zabalte dituzuen ardatz hauek beste premisarik baldute?

Jarduteko modua. Guk badaukagu kode etikoa, hauteskunde programan ere aipatzen dena: eta hori gardentasunean oinarritzen da. Gure kudeatzeko moduak premi-

sa bat dauka, kristalarena, gardentasunarena; etika.

Zerrendaburu bezala Unai Ziarrera aukeratu duzue. Zer eskaintzen du edo zer dauka aldeko?

Politikagintza zentzu onean ulertzen denaren isla da guretzat. Zer esan nahi dut honekin? Gaitasun profesional ona duen pertsona bat da; hitzekoa, kudeaketarako gaitasunaz gain politikan oso beharrezkoak diren ezaugarriak dituen; esaten duen guztia sinisten du, ausarta da eta ideiak argi ditu. Horretan gogor mantentzen da, egiten ari denean sinisten du eta nahiz eta gauzak urrutitako zailak ikusi ez da atzera botatzen. Alde horretatik lidertzaroko gaitasuna badauela pentsatzen dut.

Eta zer falta zaio?

Agian gauzak esaten dituenen, hain siniskor esaten dituenen, temati itxura eman dezake. Disimuloa agian ez dauka oso garatua. Baina bestalde horregatik sinestun du esaten ari den horretan.

Azken legealdia nola aztertzen duzue Eusko Alkartasunatik?

Balantze ezberdinak egin daitezke laste dut. Lege asko atera dira, inoiz baino produktio handiagoa egon da, alde horretatik, ondo ba-

lora daiteke. Beste lege batzuk kaitoan gelditu dira, eta nire ustez azpimarragarriena atzean gelditu den zerbaite izan da, herri ikuspegiatik begirata. Hor bazegoen kontsultaren inguruko lege bat, konpromiso bat, eta hori ez da posible izan aurrera eramatea, nahiz eta horretan guk amorerik ez eman. Gero, eguneroko gauzetarako hainbat puntu eman dira, hor nik adibide bezala hezkuntza eta kurrikulua aipatuko nituzke. Aho batez onartu da kudeaketarako gaitasun bat badagoela argi utziz. Bestalde, nire ustez, legealdiaren amaiera iruzur kasuen ondorioz nahiko ilunduta gelditu da.

Hauteskunde ondoen koalizio garaia etorri ohi da.

Korrika gehiegi egitea ez da on izaten. Kudeaketaz gain, argi daukagu herri bezala baditugula eskakizun batzuk. Dena ikusteke dago, baina argi daukagu herri ikuspegiatik begirata, gure eskubideak onartzen ez dituenarekin nekez egin daitezke lan.

Herri galdeketa inguruan esandako gauza asko ez dira egin: kontsulta bera, giza katea, kalean herritarren salaketa postuak... Ez al da korapilotsuegia bilakatu?

Agian bidean nahastu denarentzat korapilotsua izango da. Baina bidea argi zuenarentzat autopista bat eginda zegoen, eta gu zuzen zuzen joan gara.

Baina aldaketa asko egon dira bidean. Autopista izateko bide sari gehiegi?

Guk denak gainditu ditugu eta heldu egin gara. Ez kontsultara baina... Nire ustez bakoitzak bere erantzunkizunak hartu eta jasan beharko ditu. Auzitegiek ezetz esan dutela eta Europan ere ezetz esan dezaketela; horien guztien aurrean men egiten baldin bada horrela nora goaz? Horrela badakigu zer gertatuko zaigun. Ez dut uste EA ezer nahasmendurako dagoenik. Orain kontzertua eta politika, 2020ean dio orain EA.Jk. Zergatik 2020ean? Guk zehatz esaten dugu: epe ertainera indar metaketa bat baldin badaukagu, hau atera daiteke.

Abiadura Haundiko Trenaren inguruan EA herri galdeketa egitearen aldekoa al da?

Herri honetan ezin garela atzera gelditu defendatzen dugu guk. Ez azpiegitura ezta harreman mailan ere; Europarekin etabar. Justuak izate aldera, EAk esku hartzea ere izan du; adibidez, ingurugiroarekin errespetuzkoa izan behar dela aipatuz. Parte-hartzearen gaian, beti egongo gara gu prest parte-hartzean. Gero beste gauza bat da batzuek parte-hartzea nola planteatzen duten. Legebiltzarreko eztabaidetan, kontsultak, galdeketa etabar egon dira. Iritzi ezberdinak egon dira eta denak errespetatzen ditugu. Ezin duguna da, herri bezala atzera gelditu. Horrek uztartzea eskatzen du, ingurugiroarekiko errespetuarekin... Hor aipatuzkoak egin izan ditugu, plan ezberdinak aurkeztuz. Parte-hartzearen alde orokorrean egon ere bagaude, baina iruditzen zaigu askotan kritikak ere batzutan konstruktiboak izan behar direla. Herri bezala ikuspegi bat izan behar da, zer datorikigun ondo eta zer kusposatzen duen agian atzera gelditzea, horrek dituen eraginekin.

Azkenik, Alderdien Legea.

Alderdien Legearen aurka gaude. Gure proposamenak legebiltzarrean egin ditugu, eta batzutan ezker abertzaleak onartu gabe, hemen bakoitzari berea. Konen guztiaren konponbidea hemen bizi dugunaren konponbidetik etorriko da, eta gu konponbide horren alde gaude. Baina politikoki konpontzeko, irmo esan behar da badagoela eragozpen handi bat, eta hori ETA da. Mesederik ez du barettere egiten, alderantziz, kalte izugarria egiten du herri honetan eman daitekeen konponbiderako. Pertsonal mailan eta gizatasun aldetik kaltegarria nabarmen da, baina politikoki ere aitzaki guztiak jartzen ditu, gero beste aldetik ere izugarriko barrabaskeriak egiteko; atxilotetak direla, eta beste hainbat urraketa egiteko.

Tratu txarrak eta erasoak salatzen telefono zuzen bat dago orain

Tolosa » Berdintasun sailak martxan jarritako azken ekimenetako bat da hau; azkartasuna ziurtatzen du egitasmo honek.

ESTI EZEIZA

Udaleko berdintasun sailak emakumearen autonomia sustatzeko lan horretan bi ekimen berri jarri ditu martxan. Lehendabizikoa Inauterietan begira egin dute, Onintza Lasa zinegotziaren esanetan «genero ikuspegia pil-pilean agertzen den gaia baita». Atzo goizean egindako agerraldian azaldu zuten oso errotua dagoela genero ikuspegi baten gailentzea, baina hau alda daitekeela, «festetan errespetu mantentzea oso garrantzitsua baita».

Iaz, errespetuzko portaera defendatzeko lan horretan kartel batzuk zabaldu zituzten hirian eta aurrean ere gauza bera egitea erabaki dute. Dena den, oraino honetan, irudia errepikatu badute ere, bertso batzuk gehitu dituzte. Hala,

Ramos Azkarak idatzitako bertsoak eta hauen erantzuna argitaratu dituzte. Honekin lotuta, «errespetuz jokatzeko» adierazten duten pegatinak egin, eta hauek banatu dituzte dituzte gazteen artean «ezkutu sinboliko» bat egiteko.

Genero indarkeriari aurre egiteko telefonoa

Herritarren kezkei erantzuteko asmoz, eta Bilgune Feministak egindako eskakizun bati erantzunaz, «Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko telefono zenbaki bat jarri dute martxan: 943 57 22 22».

Larrialdietarako telefonoak bilatzen zituen txartela lehen ere etxez etxe banatu zuten, baina oraingoan herritarrene eskariak kontuan hartuta, telefono zuzen hau gehitu dute.

Indarkeriaren aurrean erantzun beharra zegoela ikusirik, telefono zenbaki bat jartzea egoki ikusi dute Berdintasun sailekoek. Honekin, arazoa mementoan konponduko dela diote Udalekoek, azkartasuna ziurtatzen baitu.



Josebe Iturrioz, Berdintasunerako teknikaria eta Onintza Lasa zinegotzia. E.E.E

» TOLOSAN

943 57 22 22

■ **Larrialdietarako telefono zenbakia.** Tratu txarrak edo eraso sexual bat pairatzen dutenentzat nahiz norbait jasaten ari dela ikusiz gero deitzeko.

Ekimen hau, aurrera eramaten ari diren sentsibilizazio kanpainaren lotua dago. Hori dela eta, gaiak duen garrantzia ikusita, eta ikaste-txeekin lanean ari direnez, hauen bitartez zabaldu dituzte, telefono zenbakia agertzen duten gida eta txartelak. Bestetik, toki publikoetan ere eskuratu ahal izango dira.

Joxe Arregiren erailketaren urteurrena gogoratuko dute gaur eta etzi

Zizurkil » Duela 28 urte hil zen jasandako torturen ondorioz; urtero bezala lore eskaintza egingo dute bere jaioterrian.

ERREDAKZIOA

Joxe Arregi zizurkildarra torturatu eta hil zutela 28 urte betetzen dira gaur. Hori dela eta, zizurkildarra gogoratuko hainbat ekintza egingo dituzte gaur eta etzi. 1981eko otsailaren 4an Brigada Regional de Seguridad Ciudadana polizia kideek atxilotu zuten Isidro Etxaberekin batera Madrilgo erdialdean. Atxilotu eta Direccion General de Seguridad de la Policia-
ra eraman zituzten. Joxe Arregi torturatu hil zen bederatzigun beranduago.

Urteroko ohiturari jarraituz, 19:00etan bilduko dira hilerrian eta lore eskaintza egingo dute. Ondoren, 19:30 aldera, Pasus plazan elkarretaratzea egingo dute. Jarraian, 20:00etan, torturen inguruko hitzaldia izango da Atxulondo Kultur Etxean. Egunari amaiera emateko, afaria izango da Urkamendi elkartearen. Joxe Arregiren erailketaren urteurrenoko azken ekitaldia etzi izango da. Pedro Mari Otaño plazatik abiatuta, mendi martxa egingo dute Haize-tsura. 12:00ak aldera elkartuko dirabertan.

Arregiren omenezko plaza

Zizurkilena herriko plazari Joxe Arregi izena eman zioten urte horretan bertan. Herrian gehiengoa zuen ezker abertzalea 2007ko udal hauteskundeetan legez kanpo utzi zutela baliatuta, 2008ko apirilaren 14an Angeles Lazkano buru zuen U dalak izena aldatzea erabaki zuen «biktimen sentsibilizateari eraso» egiten ziola argudiatuta. Zinegotzi guztiak bozkatu zuten horren alde, EA Jko bost zinegotziak, EAko biak, eta PSE-EE, PP eta Aralar-EB koalizioko banak. Euskal Herrian, Joxe Arregi hil zen eguna gogoratu, Torturaren Aurkako Eguna egiten da otsailaren 13an.

G Gutunak

Euren krisia euren kontura

Hilabeteotan mundu duztia dabil krisia gora, krisia behera: komunikabideak, enpresariak, gobernu eta sasi-gobernuak... langileok oso aspalditik gaude krisi larrian, baina horrek, antza, ez du batere ardurarik. Orain denon lehentasuna enpresen itzeleko irabaziak salbatzea izan behar omen da.

Orain, «krisian gaudenez», langileok «solidarioak izatea eta gerritza estutzea» nahi dute, ez dezagula lan baldintza hobea gero edo soldata igoerarik eskatu eta, gainera, langabeziara bota nahi bagaituzte, ulerkorrak izan gaituzten.

Hala ere, azken hamabost urteotan enpresek pozarren eta lau haizeetara zabaldu dituzte sekula-

ko irabaziak batere lotsarik gabe, eta orain, gainera diru irabaziak eurentzat gorde beti, eta galerak denon artean ordaintzea nahi dute.

Horrela, beraien xedea irabazitasa berreskuratzea da, alegia, herri sektoreok ordain dezagun euren etekinen berreskurapena, besteak beste honako neurri hauen bidez: kaleratzeak, enplegu erregulazioak, soldata-murrizketak, lanaren esplotazioaren areagotzea, diru publikoaren desbideratzea banketxe eta enpresariaren mesedetan, izatera sozialeko gastu publiko murrizten den bitartean...

Hauek guztiak gure eskualdean sufritzen ari garen egoerak dira. Urrik hona areagotu egin dira enplegu erregulazioan sartu diren enpresak eta kaleratzeak ere izu-

garri igo dira, hor ditugu langabeziako datuak: 2008. urtean tolosaldean 1587 langabetu, 2009. urtean berriz 2034 langabetu, %28,17a igo da.

Baina hau guztia ez da aldaezina. Langileok, emakumeok, gazteok, nekazariok, ezgaitasunak ditugun pertsonok, langabeok, pensiodunok, migratzaileok, ekologistok, garraiolari autonomoak, ikasleok... honen kontra borrokatu gaituzte. Honen kontra borrokatu ahal eta behar dugu, lau lotsagako zikin gure kontura nola aberasten diren ikusteaz gogaituak eta nekatuak gaudelako.

Eredu ekonomiko, sozial eta politikoen aldaketa ezinbesteko eta premiazkoa da. Euskal Herrian denok ondo bizitzeko behar beste ko aberastasuna badago. Baina ho-

rretarako hori modu justu batean banatu beharra dago, ekonomia pertsonen mesederako eta ez alderantziz planifikatu behar da, kalitatezko zerbitzu publikoetan inbertitu behar da, beste batzuen artean hezkuntza, osasuna, babes sozial, etxebizitza eskubideak bermatu daitezken. Eta jakina, hau guztia burutu ahal izateko Euskal Herrian eredu ekonomiko, sozial eta politikoa hori erabakitzeko eskubidearen jabe ere izatea ezinbestekoa da.

Beraz, hau guztiagatik, LAB Sindikatuak datorren larunbata hilak 14, eguerdiko 12:00etan triangulotik abiatuko den manifestazioa gonbidatzen zaituztegu.

Langileok aldaketa!
Olatz Amiano. Tolosaldeko LABen zinean.




sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

irabazlea:

◦ Josetxo Lasarte Mujika (Ibarra)

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.



harpidedunentzat
TXOKOA hitza

Mozorroen lehen erakustaldia, bihar, Inauterietako haur jaialdian

Tolosa » Aiz-Orratz elkarteak antolatzen duen ekimena, Leidor aretoan izango da, 16:30etik aurrera.

INIGO TERRADILLOS

Ohiko moduan mozorroak erakusten lehenak gaztetxoak izango dira aurten ere. Datorren ostegunean, Ostegun Gizenarekin, hasiko dira Inauteriak, baina, etxeko txikieneztat bereziki, bihar, hasiko da festa, Aiz-Orratz elkarteak antolatzen duen Inauterietako haur jaialdian.

Leidor aretoan izango da jaialdia 16:30etik aurrera, eta gaztetxoek nahiz hauen gurasoek arratsalde polita igarotzeko osagaiez betea izango da. Haur guztiak mozorrotuta joan ohi dira jaialdira, eta horietako batzuk epaimahairen aurretik pasatzera ere animatzen dira. Hori jaialdia hasi baino lehenago egingo dute, jubilatuen egotzan 15:00etan, hain zuzen ere. Hala, jaialdian bertan, epaimahaiak kideek hartu duten erabakiaren berri ematen dute. Gehien gustatu zaizkien mozorroak sarituko dituzte, beraz, eta jasoko duten sarietako bat, Zaldunita Bezperako danborradako karrozan irteera izango da.

Joseba Usabiagak eta Maier Lopezegik aurkeztuko dute jaialdia, eta ia bezala, Poxpolo eta Mokolo pailazoez hartuko dute parte, Al-



Azken urteetan bezala, Poxpolo eta Mokolo pailazoez izango dira jaialdian. M.S.

berto Gonzalez magoarekin batera. Jaialdiaren amaieran, gainera, askaria ere izango da.

Marrazki lehiaketa ere bai

Jaialdiaren beste osagaietako bat marrazki lehiaketa izaten da. Tolosako ikastetxeetako neska-mutilek hartu ohi dute parte hemen, eta Inauteriak gai bezala hartuta aurkeztu behar dute marrazkia. Epaimahaiko kideek aukeraketa egin ostean, hauen irabazleen berri ere bihar emango dute jakitera.

Aurtengo jaialdirako neurriak

Aiz-Orratz elkartetik jakinarazi dutenez, aurten jaialdira sartu ahal izateko modua aldatu egin dute. «Gonbidapenekin soilik sartu ahalgo da, eta hauek Leidorreko leihatilan banatuko dituzte, bihar bertan, 14:30etik aurrera». Bakotzak, gehienez, lau gonbidapen

tuko diren gaztetxoak gonbidatu nahi dituzte mozorroturik joan daitezten.

Bi hilabete lehenago hasten dira gutxi gorabehera ekitaldi hau prestatzen, eta hasieratik helburu bera izan du: «Tolosaldeko haurrak Inauterietan murgiltzea, Inauterietako kutsua zabaltea umeen; horretarako, antolatzen dugu jaialdia, eta haurrak mozorrotzera animatzen ditugu».

Datorren urtean ere Aiz-Orratz elkartearen esku

Aiz-Orratz elkarteak arduratu da azken urteetan jaialdia antolatzeaz, eta aurtengoa azken urtea izango zela zabaldu bazen ere, azkenean, elkarrekin beste talde baten hartuko du lekukoa. Horregatik, aurtengo jaialdian urte hauetan guztietan antolaketa lanetan lagundu duten pertsonaiek ere parte hartuko dutela azaldu dute elkartetik; hauek, sari banaketan izango dira.

ZALDUNITA BEZPERAKO DANBORRADAREN ENTSEGU NAGUSIA, ETZI

Zaldunita Bezperako danborrada antolatzeaz ere arduratzen da Aiz-Orratz elkarteak. Horretarako, Tolosako ikastetxeetako haur eta gazteen parte-hartzea izaten dute.

Danborradarako entsegu nagusia etzi, igandean egingo dute. 11:00etan izango da Triangulon, eta euria egingo balu, Zerkausian egingo dutela adierazi dute. Elkartetik, danborradan parte hartuko duten guztiei egiten diete deia, baita kosaka eta kantineri ere.

Kontuan hartu behar da aurten aldaketa izango duela Zaldunita Bezperako danborradak, kolektorearen obrak direla eta. Orain arte, Geltoki kaleetik abiatzen ziren Triangulorantz, eta han kantinerak-eta aurkezpena egin ostean, Gorosabelarantz abiatzen ziren, Aiz-Orratz elkarteroaino. Aurten, ordea, Santa Maria kaleetik abiatuko dira ohiko orduan, hau da, 17:00etan; Zerkausitik Triangulora egingo dute, eta hortik aurrera guztia ohiko moduan izango da: aurkezpena egin, eta Aiz-Orratz elkarte pareraino joango dira danborrei eraginez.

Kolaborazio delitua egotzita, azken epaiaren zain geratu da Eneko Galarraga

Villabona » Atzo izan zuen epaiketa Madrilen; fiskalak zortzi urteko espetxe zigor eskaera egin du.

ERREDAKZIOA

Eneko Galarraga euskal preso bilabonatarra atzo goizean epaitu zuten Madrilen. Gaztea Toledoko Ocaña II espetxean dago pasa den urteko urritik, nahiz eta aurretik Soto del Realen urte erdi bat egin. Orain arte etakide izatea leporatzen zioten baina atzo goizean izandako epaiketan kolaborazio delitua egotzi zioten. Fiskalak zortzi urteko espetxe zigor eskaera egin du eta defentsak, berriz, absoluzioa eskatu du. Azken epaiaren zain gelditu da, beraz, bilabonatarra.

Laburrak

Urte guztiko boletoen lehen saria, gaur

IBARRA » Eguberrietan saldutako urte guztiko boletoen lehen sariak bigarren zenbakia gaurko ONCEn zenbaki bera izango da.

Ibarra eta Atenearen artekoa, bertan behera

IBARRA » Pasa den larunbatean Ibarra Belabietan jokatzeko zen Ibarra areto futbol taldea eta Atenea taldeen arteko partida bertan behera geratu zen. Bihar, Santanderren jokatzeko dute Candesa-Camargo taldearen aurka.

Zuzenketa. Juan Bautista Aranzabe Mate Festa Batzordeko kideak gaur emango du hitzaldia Amaro Azuzo Elkartean, 20:00etan, eta ez atzo, HITZA-n atzo argitaratu bezala. Han eta hemengo inauteriak, datuak Inauterietan buruz, Inauterietan museoa Tolosan eta Inauterietan etorkizunari buruz ariko da.

bozkatu
EAJ-PNV
Jakin eta egin

Ibarra Pretxe

Krisialditik ateratzeko Lehendakaria

Ongizaterako Lehendakaria. Berrikuntzarako Lehendakaria. Gauzak egiten dituenak. Krisialditik ateratzeko eta Euskadi nazioarteko abangoardia ekonomikoan kokatzeko esperientzia duen Lehendakaria. Ibarretxe behar dugu. Orain, inoiz baino gehiago.

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

Bihar iluntzeko barrikotean Bereziartua sagardotegiko menua izango da

ERREDAKZIOA

Bihar gauean Bedaion festa izango da. Urtero bezala, otsaila inguruan barrikotea antolatzen du Artubi elkarteak eta oraingoan bihar izango da. Iluntzean Artubi elkartearen bilduko dira horretarako. Dagoeneko prestatu dute urtean zehar egin beharreko egutegi berria eta hau da urteko lehena.

Bereziartua sagardotegitik egun horretarako bereziki prestatutako aurtengo sagardo berria dastatu ahal izango da barrikotean. Sagardotegietan ohikoa den jatekoa emango dute. Makailao tortilla, makailao frijitua eta txuleta nahi adina eta postreerako gazta, irasagar eta intxaurrek. Hau guztia prezio merkean izango da.

Beti bezala, Artubi elkarteak ekitaldi hau irekia da eta edonor joan daiteke «gure artera ondo pasatzera».

Laburrak

Gaur iluntzean Herrigintza elkarteak bilera izango du

IKAZTEGIETA • Gaur Ikaztegieta Herrigintza elkarteak bazkideei zuzendutako bilera izango da. Urteko batzarra izango da, beraz garrantzia duena. Lehen deialdia 21:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 21:15ean. Bazkideak bertara azaltzea eskatu dute.

Diru laguntzak jaso dituzte hainbat herrik

AZPIEGITURAK • Dagoeneko Alegialdeko hainbat herrik diru laguntza batzuk jasoko dituztenaren berri izan dute, esaterako, Baliarriak, Amezketak eta Albizturrek. Baliarriaren 16.106 euroekin udaltxeko fatxada berrituko dute. Amezketan ur edangarrien eta zoladuraren sarea berrituko dute 168.847 euroekin. Albizturen ur edangarrien hornidura sarea hobetuko dute 53.450 euro erabiliz.

Gaur 21:00etan, Euskadiko Ligako kadeteen partidak

AMEZKETA • Gaur gauean, 21:00etan hasita, Amezketako Larrunarri pilotalekuan Euskadiko Ligako pilota Txapelketako partidak jokatuko dituzte. Lehenik, kadeteen mailako eskuz banakako partida izango da, Zazpi-iturri (Joseba Gallurraide) eta Txukun Lakuako kadetearen kontra. Ondoren, kadeteen mailako eskuz binakako norgehiagoka jokatu dute Zazpi Iturriko Gaztañaga-Jakak eta Txaruta eskolako bikoteak.



Zortzi lagun elkartzeko dira asteazkenean, bertsotan ikasteko eta aritzeko, beti ere era ludikoan, gozagarrian. N. URBIZU

Ikaztegieta bertsosko eskola osatu dute eta astero zortzi lagun biltzen dira; bertsosko eskolak Jexux Murua altzotarrak ematen ditu, eta helburu nagusia ondo pasatuz bertsoen sortze konszienteago batera iristea da.

Bertsoen erroen baitan

NEREA URBIZU

Lagun artean bertsoak egiteko gaitasuna izatea, ondo pasatzea, hori da Ikaztegieta bertsosko eskola berriak bilatzen duena. «Taldea polita elkartu gara, adin desberdinekoak gara eta klasetik kanpo ez dugu harremanik: barre batzuk egiten ditugu elkarrekin». Zortziko bertsozale talde hau Jexux Murua altzotarrarekin hasi da bertsosko munduaren erroak, oinarriak, antolamendua, eraketak ezagutzeko asmoz.

Astean behin zortzi lagun elkartzeko dira, Ikaztegieta udaltxeko goiko lokalean. Ordu eta erdi inguruz egoten dira. Ikasten ari diren taldeak sei ikaztegiak dira eta Orendaingo bat eta Legorretako bat ere joaten dira, gizonzakoak guztiak. Adinaren aldetik oso talde anitza da, izan ere, gazteenak 23 bat urte ditu eta zaharrenek 50 urte inguru. Dena dela, Jexux Murua bertsosko irakaslearentzat ez da oztopoa: «Denak helduak dira eta denak erritmo berdina eramateko moduan gaude. Gainera, bertsolaritzarekiko harreman antzekoa dute guztiak eta jakintza maila ere berdintsua».

Helburua, «ondo pasaz bertsoa ikastea»

Ikasleentako batek azalduta, «herrian bertsosko eskola bat egotea ondo egongo zela genion hiru lagunek eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari jarri ginen harremanetan. Gero, Udalarri proposamena egin genien, komentatuz, bertsosko eskola bat nahi genuela. Bagenekien parte hartu nahi zuten jendea zegoela». Handik aurrera, Udalak deialdia zabaldu zuen eta ahoz-ahozkoak ere emaitza onak eman zituen. Izan ere, «ez genituen zor-



Bertsoak sortu eta garai bateko bertsoak ere kantatzen dituzte. N. URBIZU

tzi lagun biltzea espero, arrakasta da guretzat».

Tolosako bertsosko eskolan aritu izan da Jexux Murua, aspaldian. 1982an jarri zen martxan eta helduentzat zen orduan: ikasle bezala hasi zen eta handik bi urtera haurrentzako ere jarri zuten eta irakasle hasi zen hauekin. 1995. urtera arte gutxi gorabehera klaseak eman ditu. Bertsosko eskola honetan lau bat lagun aritu ziren.

Ordutik hona, klaseak emateko modua zer edo zer aldatu dela aitortzen du Murua: «Bilakaera izan da, laguntza gehiago dago, metodo gehiago dago, erreferente gehiago»...

Arestian aipatu bezala, helburua ez da bertsolaririk izatea: bertsos-

letasunak batu ditu. «Taldekako bertsoaren tripetaz ez dira jabetzen guztiak, teknikoki nola dauden osatuta, doinuak ezagutu, horiek aberastu... Sortze prozesu hori ikasten ari dira: «Taldeen asko dira bertsoa osatzeko gauza direnak, baina bere kasa egiten dute. Klase-

@ Inkesta. Binakako Pilotatu Txapelketa nork irabaziko du? Bost bikoteraren artean erabaki dezakezu: Gonzalez-Barriolak, Bengoetxea VI-Belokik, Olaizola II-Mendizabalek, Titin III-Pascua-lek ala Martinez Irujo-Gofi III.ak. Bozka eman dutenen arabera, Gonzalez-Barriola eta Olaizola II-Mendizabal berdinduta daude...

www.tolosaldeko-hitza.info

en bidez, bertsoaren nolabaiteko kontrol bat izatera iristea nahi da. Ahaztu gabe, ondo pasatuz, oso modu ludikoan eta gozatzuz». Azken batean, «sormen konszienteago batera iritsi nahi da».

Memoria ere lantzen dute, aspaldiko bertsoak abestuz eta gogoratuz. «Gertaera zehatzen bat suertatzen bada, horri buruz egindako bertso sortak ematen dizkiet adibidez». Bilatzen duten bertsoen oinarri hori aberasteko balio duen bertsolaritzaren zatia da hau: «Tradizioaren funtsa, oinarria ere behar da bertsotan, idazle batek asko irakurri behar duen bezala».

Bertsozale hauek badakite dagoeneko, zein bertso neurri dau den eta erabili daitezkeen, zein ezaugarri dauzkaten... Hemendik aurrera entzungo dituzten bertsoak beste belarri batzuekin entzungo dituzte, irizpide gehiagorekin.

Denak gizonzakoak

Alegialdeko bertsosko eskolan denak gizonzakoak dira. Ikaztegieta ere bai. Amezketan emakume gutxi batzuk badira, baina orokorrean gizonzakoak ari dira. Honetaz galdetean inork ez du arrazoi sendorik ematen jakin: herriarrek diote, herrian neskek badirela, «baina ez dira bertsozaleak izango». Murua-

Hemendik aurrera entzungo dituzten bertsoak, beste modu batera entzungo dituzte

ren arabera soziologia kontua da. «Ikaztegieta, adibidez, Santa Ageda bezperan emakume talde batetorri zitzaigun kantatzera, hona, bertsosko eskolara: bitxia izan zen. Guztiak gizonak ginen».

Deialdi zabala egin zen baina gizonzakoak dira izena eman dutenak. «Ez dut uste bertsolaritzaren kontua-edo arazoa denik. Gaur egun emakumeak badira bertsoetan, batez ere gazte mailan. Orain gutxi arte oso gizonzakoena izan da bertsolaritza, gu geu hasiera horretan emakume bat plazan ikusten genuenean harritu egiten ginen, gaur egun ez».

«Euskal kulturaren indartsu dago» bertsolaritza: honen adierazle, azken urteetan Tolosaldean sortzen ari diren bertso eskolak izan daitezke: Alegian, Amezketan, Berastegin, Ikaztegieta... Eta hurrengo batzuk ere izango direla, seguru.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbitasunak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04.

■ **Sulkaldaria.** Tolosako Inauterietan sulkaldari lanetan aritzeko extra bezala eskaintzen naiz. Juan Luis. 629 652640.

Ederki ari dira herriko eskiatzaileak mundu mailako txapelketetan



Rojo anaiak (irudian) fin ari dira lanean. HITZA

Tolosa » Xabier Saizar gaztea Polonian da Gazteen Olinpiar Jokoetan parte hartzeko; Rojo anaiak ere ondo ari dira.

REBEKA CALVO

Eski zaletasuna zabaldua dago gure eskualdean, asko dira txikitatik, Tolosako Alpino Uzturre Mendi Elkartean irteeretan parte hartu eta kirol honetarako zaletasuna landu dutenak, nahiz eta «gure orografia eta klima ez diren egokienak ere».

Guk horietako hiruekin hitz egiteko aukera izan dugu. Emaitza onak izan dituzte azkenaldian, sari

ugari ere jaso dituztelarik. Xabier Saizar gazteak, esate baterako, sari ugari jaso ditu, eta orain, gainera, Polonia bidean da, han jokatuko diren Gazteen Olinpiar Jokoetan hartuko baitu parte. Rojo anaiak, Imanol eta Ioseba, ere oso ondo aritu dira, hauek ere sari ugari jaso dituzte.

Xabier Saizar gazteak «urduri samar» dagoela aitortu du, Gazteen Olinpiar Jokoetan «maila altua» dela dio eta beraz, ez daki orain arteko sari erritmoa jarraitzeko modua izango duen. Izan ere, Europako Kopan 30. postu inguruan geratu zen eta Mayencos Irekiera Txapelketan ere, kadete mailan, lehen postua eskuratu zuen.

Poloniako bidean

Polonian lasterketak astelehenean hasiko dira eta ostiralean amaituko dira eta bertan Saizarrek lau lasterketei egin beharko die aurre; «horietako bi bakarkakoak izango dira. Gu Espainiatik bost pertsona goaz -Irungo neska bat, bi kataluniar, aragoiar bat eta bostak- eta nere kasuan behintzat, ezer irabazteko esperantzarik ez badut ere, marka ona egiteko asmoa dut. Ahal den neurrian behintzat, lan txukuna egitera goaz».

Imanol Rojo, bere aldetik, Europako Kopan bi aldiz geratu zen laugarren junior mailan. Mundialean ere 37. postua eskuratu zuen eta harro ere badago, «oso ondo dago», esan du zentzu honetan. Orain arte beste maila batean aritu dela dio, baina aurtengoan «gehiago kompetitzeko» unea ere iritsi zaio. «Ez da beste urteetan bezala, atzean geratzen ginel, orain aurrean ere sartzen gara», esan du. Orain gainera, gehiago ere entrenatu behar izaten duela dio: «Urteak urtera gehiago entrenatzen gara».

Ikasketak eta eskia

Hiruek ikasketak eta eskirako afizioa uztertzzen dituzte, ez da erraza, «eskola batzuk ere galdu egin behar izaten ditut eta gero gogorra da lan hori errekuaritzea», dio Saizarrek.

Rojo anaiak iritzi berekoak dira, baina Imanolek badu bestelako eronkarik orain; igandean honetan Txinara joango baita hamabost egunez, bertako unibertsitate batean ikasteko da eta. Mundialean ere izan zen Imanol, 23 urte azpiko mailan, eta 38. postua eskuratu zuen.

Bien bitartean, entrenatzen ari dira jo eta su tolosarrak. «Normalean asteazken zehar entrenamendu ugari egiten ditut eta asteburuetan eskiatzera joaten naiz», esan du Saizarrek, zentzu honetan.

Hitzarmena 2 eta 3 urteko haurren haurtzandegirako

Ibarra » Udalak eta Uzturpek sinatu dute akordioa; Udalak doan utzi dio eraikina eta 700.000 euro inbertitu ditu.

ERREDAKZIOA

Txelo Romeo Ibarra alkateak eta Jokin Zubillaga Uzturpeko zuzendariak hitzarmena sinatu zuten atzo Udalak ikastolari instalazio batzuk dohain uzteko.

Hitzarmenaren arabera, instalazio hauek 2 eta 3 urteko haurrei haurtzaindegi zerbitzua eskaintzeko erabiliko dituzte. Udalak 700.000 euro inguru inbertitu ditu eraikina erosi eta hau egungo araudira egokitzeko.

Haurtzaindegia Emeterio Arrese kalean dago eta txikiei arreta egokia eskaintzeko behar den guztiaz hornitua dago. Izatez, Udalak 300.000 euro inbertitu ditu instalazio hauek prestatzen, eta era honetako zerbitzuatarako araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzeko moduan jartzen. Inbertsioaren gainerakoa eraikina erosteko eraman du, eta, haurtzaindegiaz gain, herritarren beharrei erantzuteko beste bi gela atondu dituztela argitu dute.

Udalak esandakoaren arabera, ibartarren artean antzemandako eskari handia izan da, hain zuzen, Udal Gobernuak hasiera batean zerbitzu publikoetara bideratutako lokal hau egokitu eta haurtzaindegi izateko hartu duen erabakiaren arrazoiak.

Oraingoz, urtebeteko lagapena egin zaio Uzturpe ikastolari, baina epe hori 25 urtera luzatua izan daiteke.

Gastuak Udalaren kontura

Sinatutako hitzarmenak dio Ibarra Udalak bere gain hartuko dituela lokalaren erabileratik eratorritako gastu guztiak, esan nahi baita ura, argindarra, gasa, bero gailua, igogailua, aseguruak, garbitasuna, zergak edota zaborrak.

Ikastolak bere aldetik, instalazioen mantenuari dagozkion gastuak ordainduko ditu, hala nola, barruko konponketak edo hausturak, eta jardueragatik sortutakoak nahiz erantzukizun-asegururak.

Era honetan, Ibarra 2 eta 3 urte bitarteko haur-hezkuntzako haurtzaindegi zerbitzu osoa dauka aurtengo ikasturte honetatik bertatik, arreta hau jasotzeko orain arte beste tokietara eraman behar izaten zituzten haur hauen gurasoekin eskariari erantzunez.



Jokin Zubillaga eta Txelo Romeo hitzarmena sinatzen. HITZA

Laburrak

Escolako haurrak gaur aterako dira mozorrotuta

BERASTEGI • Berastegiko escolako haurrek ere Inauterik ospatuko dituzte. Hori dela eta, gaur 14:30etik 16:00etara herrian barrera ibiliko dira beren «mozorro multikulturalekin». Gogoratu behar da, herrian bihar izango dituztela gainontzeko ekintzak; 17:00etan dantzak izango dira, ondoren poteoa txarangarekin eta afari herrikoia ere egongo da.

Bihar ospatuko dute Dantza Soka Eguna

ANOETA • Anoetan Dantza Soka Eguna ospatuko dute bihar, larunbata. 8:30ean plazan bilduko dira dantzariak eta ondoren, 9:00etan, baserrietara joango dira. 12:00etan izango da mutilen dantza plazan eta bazkaltzera joango dira gero Kuku elkartera. 17:00etan nesken dantzaren txandak izango da plazan. Erromeria ere izango da iluntzean pilotalekuan.

ONA txartela eskuratu daiteke jada Kzgunean

IBARRA • Hil honetan zehar astelehen, asteazken eta ostiralean 09:00etatik 13:00etara egin daiteke Ibarra KZgunean ONA txartela. Ibarra Udalak esan duenez, txartel honekin kiroldegietan sartu ahal izango da, Udal Liburutegietan katalogoak kontsultatu eta mailegatzeko posible izango da eta erolida-agiriak ere lortzeko aukera emango du, besteren artean.



10°
1°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 11°
HOTZENA 2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialedea: 687 410 034. alegialedea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzailedea: 687 410 118. leitzailedea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Villabona.** Gurea aretoan, *Gomorra* filma gaur 22:00etan, bihar, 19:30ean eta 22:30ean, etz, igande, 19:30ean eta hilaren 16an, astelehenean, 21:30ean. *Mission en McLand* filma bihar eta etzi 17:00etan.

■ **Tolosa.** *7 almas* filma emango dute Leidor aretoan gaur 22:30ean, etzi 19:30ean eta 22:00etan eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Inauteriak

■ **Irura.** Kaldereroak 18:00etan kulturunik aterata herrian zehar. Ondoren txistor jatea parte-hartzaileentzat San Migel Plazan. Herriar guztiei parte hartzea animatzen zaie.

■ **Lizartza.** 14:15etik aurrera Inauterietako mozerro festa, eskolak antolatuta.

■ **Tolosa.** Kalderero kontzertua izango da Leidor aretoan 19:30ean, Eduardo Mokorora Udala Musika Eskolak antolatuta.

■ **Tolosa.** Juan Bautista Aranzabe *Mate* tolosarrak Inauterietan buruzko hitzaldia emango du gaur 20:00etan Amaroako Auzo Etxe Elkartearen.

■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Gaur izango da horretarako azken eguna.

Erakusketak

■ **Villabona.** El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari buruzko argazki erakusketa Gurea aretoaren sarreran.

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketa Aranzaburu Jauregian.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatu elkarteak Santillana del Mar-era irteera antolatu du hilaren 17rako. Izen-ematea, elkartearen 12 eurotan. Gosaria Quevedan, promozio komertziala eta bazkaria musika, dantza Rocío erromeriarenkin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Behe Bidasoa ere HITZArenkin

Hedabideak » Hondarribia, Irun, Hendaia, Biriatu eta Pausuko egunkariaren 0 zenbakia banatu dute gaur Behe Bidasoa eskualdean.

ERREDAKZIOA

Behe Bidasoan laster izango du euskarazko bere egunkaria: *Behe Bidasoako Hitza*, martxoaren 27an sortuko baita. Hendaia, Hondarribia, Irun, Biriatu eta Pausuko berri emango du, bitarteko eta euskarri ezberdinetan. Euskarazko prentsan herri informazioaren eskualde hartan dagoen hutsuneetako bat beteko du honela, eta zortzigarren HITZA izango da.

Izan ere, Euskal Herrian beste zazpi Hitza daude, eta hauetan bezala, Behe Bidasoan ere eskualdeko euskalgintzaren eta gizarte eragileen eta Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideen artean sortuko da HITZA. Behe Bidasoaren kasuan, zehazki, Pauso Media Elkarteak, Irun Iruten euskara elkarteak, Hondarribiko Bagartian euskara elkarteak, Hendaia euskalgintzak, Bertako Hedabideek eta eskualdeko gizarte eragileen ordezkariak osatuko dute enpresa argitaratzailearen administrazio kontseilua.

O zenbakia, gaur

Gaur banatu dute 0 zenbakia, baina HITZAren sustatzaileak aspaldi



Azaroaren hasieran hainbat eragile bildu zen Behe Bidasoako HITZA laguntzeko Irunen egindako agerraldian. HITZA

ari dira komunikazio proiektuaren berri ematen eskualdean zehar.

Behe Bidasoako gizarte eragile eta norbanako talde batek, euskarazko prentsak eskualdean dituen gabeziak nabarmentzearekin batera, euskarazko tokiko prentsa beharra aldarrikatu zuen iazko ekainean. Aldarrikapen hura konatuan hartuta, eskualdean euskarazko komunikabideen eremuan lanean dabilen eragileek eta eskualdeko euskalgintzak konpromisoa gauzatzera eta abiarazteza

erabaki zuten azaroan, eta BEHE BIDASOAKO HITZA sortzeko laguntza kanpaina aurkeztu zuten.

Hiru euskarri izango dituen komunikazio proiektua

Ilido horretan, BEHE BIDASOAKO HITZA lehen urratsak egiten hasi da gaur komunikazio proiektu bezala. 0 zenbakiaren 15.000 ale bantatu dituzte eskualdeko 80 leku publiko eta ikastetxetan.

Martxoaren 23tik aurrera, hiru euskarri izango dituen proiektua martxan hasiko da. Eredua, nola-

bait, ezberdina da gainerako Hitzenaren aldean: www.bidasoamedia.info webguneak edizio jarraitua izango du, www.behebidasoakohitza.info webgunean astelehenean ostiralera e-gunkaria argitaratuko da flash eta PDF euskarrietan eta, azkenik, ostiraleko 16 orrialdeko papereko edizioa jasoko dute harpidedunek postontzian. Proiektuaren sortzaileek eskatu duten laguntza jasoz gero HITZAK, 16 orrialdeko papereko edizioa 32 orrialdeko bihurtuko litzateke ostiralero.

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak